



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

"Gaurko Emakumeak 2014". Sari banaketea

Abellaneda, 2014ko martiaren 6a.

Emakumezkoen Nazinoarteko Eguna izateko egun bi falta dirala, "GAURKO EMAKUMEAK 2014" sariketaren ospakizun nagusia izan da Enkarrietako Museoa. Sopuertako Gaurko Emakumeak alkarteak urtero antolatzen dauen sariketa horretan, bada, bardintasunaren aldeko lanean nabarmendu diran Enkarrietako edo eskualde horregaz loturiko emakumeak saritzen dira. Aurton sarituak bi izan dira: bata, euren alkartekide bat, Rosario González andrea hain zuzen, Gueñeseko "Soineko" paperezko jantzien alkartean egiten dauen lanagaitik; eta bestea, Pilar Ardanza Gizarte Ekintzako Foru Diputatu andrea. Sariketa horren VIII. Edizinoaren sari-banaketa ekitaldian izan da Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria. Emakumezko sarituak zoriondu eta animatu egin ditu egunero-egunero bardintasunaren alde egin dagien, "ekarpen bakotxak, txikienak be, aurrera garoazalako".

Aldarrikapena, autortza eta jai-giroa batzen dituan ekitaldi hau urtero egiten da, martiaren 8aren inguruan, eta Madariaga lehendakariak esan dauen moduan, bardintasunaren aldeko burrukan "balantzea giten laguntzen deusku, lortutakoez jabetzen eta, betez be, etorkizunari begiratzeko ikuspegia hartzen". "Balantzea giten laguntzen deusku, lortutakoez jabetzen eta, betez be, etorkizunari begiratzeko ikuspegia hartzen. Etorkizun horretarako, bada, ezinbestekoa da emakumezkoen alkarrekin Bizkaian egiten daben lan eskerga goraltzea, finkatzea eta bultzatzea, behar beharrezkoak diralako emakumezkoen eta gizonezkoen arteko bardintasuna lortuko badogu. Sopuertako "Gaurko Emakumeak" alkarrea be horren erakusgarri bikaina da, esku-eskutik daroazalako aldarrikapen teorikoa eta eguneroko lan praktiko eraginkorra.

"Emakumezkoena da krisi garaiotan laguntzaren beharrezkoak daben taldeetariko bat; izan be emakumeok jasaten dogu langabezia tasarik handienetarikoa eta geuk jasaten dogu mendekotasun egoeran dagozan pertsonak zaindu beharrezkoak daben zamarik handiena, adingabeak dirala, adinekoak dirala edo desgaituak dirala" generatu dau Ana Madariaga Batzar Nagusietako Lehendakariak.

Sarituakaz eta bertaratu diran ikusle ugariakaz batera, bertan izan dira Koldo Artaraz Gueñeseko alkatea; Joseba Andoni Llaguno, Sopuertako alkatea; Irene Pardo, Nekazaritzako foru diputatu; Felisa Peral "Gaurko Emakumeak"-en alkarburua eta Izaskun Landaida Emakundeko zuzendaria. "Enkartadas enkantadas" antzerki taldearen saioak girotu dabe ospakizuna.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Entrega de los premios "Gaurko Emakumeak 2014"

Abellaneda, a 6 de marzo de 2014.

La Asociación Gaurko Emakumeak de Sopuerta ha entregado hoy, a dos días del Día Internacional de la Mujer, sus premios "GAURKO EMAKUMEAK 2014", en un acto celebrado por la tarde en el Museo de Las Encartaciones. Esta asociación reconoce anualmente la labor de mujeres de Enkarterri o que guardan algún vínculo con la comarca, y que destacan por su trayectoria profesional o sensibilidad social en pro de la igualdad. Este año, sus reconocimientos han recaído en una de sus socias más veteranas, Rosario González, así como en la Asociación de Vestidos de Papel "Soineko" de Gueñes, y en Pilar Ardanza, diputada foral de Acción Social. La gala de la VIII edición de estos galardones, ha sido presidida por Ana Madariaga, presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, quien, después de felicitar a las premiadas, ha animado a éstas a seguir trabajando "día a día" por la igualdad, "porque cada contribución, por pequeña que pueda parecer, nos hace seguir avanzando", ha dicho.

Este acto, que "une reivindicación, reconocimiento y celebración festiva", se celebra todos los años en torno al 8 de marzo, un día que "nos permite hacer un alto en el camino en la lucha por la igualdad", ha recordado Madariaga. "Nos ayuda a hacer balance, a ser conscientes de los pasos avanzados y, sobre todo, nos da perspectiva para mirar hacia el futuro. Un futuro en el que sigue siendo imprescindible resaltar, afianzar e impulsar la labor que están desarrollando las asociaciones de mujeres en Bizkaia por la reivindicación de la igualdad entre mujeres y hombres". A su juicio, como otros grupos de mujeres, la asociación Gaurko Emakumeak de Sopuerta "es una buena muestra de cómo se pueden aunar reivindicaciones en el plano teórico y una eficaz acción práctica en el día a día".

En su intervención, Madariaga ha recordado que el colectivo de mujeres se encuentra "entre los más necesitados de apoyos y ayudas en estos tiempos de crisis", puesto que es un colectivo al que le afecta "más" el desempleo y sobre el que "recae el mayor peso en los cuidados a las personas con dependencias, sean menores, ancianos o personas con diferentes discapacidades".

Además de las premiadas, el acto desarrollado en la Casa de Juntas de Abellaneda, ha contado con la presencia de la directora de Emakunde, Izaskun Landaia; el Alcalde de Gueñes y presidente de Enkarterri, Koldo Artaraz; el alcalde de Sopuerta, Joseba Andoni Llaguno; la diputada de Agricultura, Irene Pardo; y la presidenta de la Asociación Gaurko Emakumeak, Felisa Peral. El grupo de teatro "Enkartadas enkantadas" ha amenizado la velada con una pequeña representación escénica.